

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetamalaugarren urteko Urrilaren oge-tabederatzian, Ekautajauregian, Etxaide jauna maipuru dala ta Irigarai, Lekuona, Villasante, Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak bertan dirala, egiten dau Euskaltzaindiak egungo deitutako batzarra.

Araudi-otoitza eginaz, lenaureeko batzar-agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

Urrengo irakurri dira Jose Maria Lojendio, Antonio Arrue ta Gregorio Maidagan jaunak egin jakezan euskaltzaintza-ordearen eskiñiari emoten dautsen erantzuna; lenengo biak artzen dabela dinoe, ta euren eskerrona bidaltzen dabe; irugarrenak bere eskerrona agertzen dau, baina eskiñiriko kisa ez artzeko daukazan zioak zearo azaltzen dauz. Erantzunak ikusirik, Lojendio ta Arrue jaunak euskaltzain-ordetzat artea erabagi da ta deitu bekioe urrengo batzarretara.

Euskaltzain guztiak, Euskaltzaindiaren erabagiak ezagutu daiezan, dagozan Euskera aldirokoen ijekiak emon dakioezala erabagi da. Baita egingo diran batzarren egitamua ta lenaurreko batzar-agirien ijekiak bidali dakioezala bere.

Tovar urgazle jaunak, bere liburu *La Lengua Vascaren* bigarren agerraldiko ijeki bat bidaldu dautso Euskaltzaidiari. Eskerronez artu da.

Arestian Euskaltzaindiak atonduriko sari-batzaldirako amaika gertirudi ta sei-puin-sorta artu dira; aztertu begiez euskaltzainak, bere erean epai egokia emoteko.

Azkenez, entzuten dira Alfonso Irigoyen jaunak dauzan azalben batzuk. Lehenengo, Maidagan diru-zainaren izenean diru-zertzeladak; egun Euskaltzaindiak daukan dirua da: Donostian 20.3000 peseta; Bilbon 7.869,50 peseta; guztiz 28.169,50 peseta. Gero, Euskaltzaindi-etxean egindako barrizkuntza-lanak zelan doazan ta egoki amaituteko bear diranak zeaztuaz. Urrengo, liburutegiko zerrendagintza ta kidegintzaren barri emonaz. Arretaz ta pozik entzun dira barriok.

Beste barik eta araudi-otoitzaz amaitu batzarra.

Zadorlaria
Nazario Oleaga